

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Hasierako onarpena ematea hainbat ordenantza aldatzeari

Udalbatzak, 2016ko urriaren 4an egindako ohiko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion ordenantza hauek aldatzeari: trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza; autokarabanak eta etxebizitza-ibilgailuak Santikurutze Kanpezun horretarako dagoen aparkalekuan aparkatzea eta gaua ematea arautzen duen udal ordenantza; eta zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen ordenantza.

Bat etorritz uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak xedatutakoarekin, jakinarazten da espediente jendurrean egongo dela, udal bulegoetan, hogeita hamar egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, epe horretan interesdunek aukera izan dezaten espedientea aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko. Jendurreko epea igaro eta erabaki horren aurka erreklamaziorik aurkeztu ez bada, behin betiko onartutzat joko da.

Santikurutze Kanpezu, 2016ko urriaren 4a

Alkatea

IBERNALO BASTERRATXASKO